

DOSIERRA

2 POLIEDRO



GARIKOITZ MENDIZABAL — AITOR FURUNDARENA

2 POLIEDRO

*"Musikan mugak norberak zehazten ditu,
tresnak berak baino askoz gehiago.
Aske utzi ditugu txistua eta akordeoia,
itxiturako langa zabaldu diegu, eta gu
ohartzerako, bertatik atera eta bi poliedro eder
marraztu dizkigute"*



Garikoitz Mendizabal eta Aitor Furundarenak musikaz marraztu eta margotu egiten dute; kalei-doskopio baten moduko marraz-

kiak, forma poliedrikoez, koloreak uztartuaz, bolumenak sortuaz, eta guzti honen bitartez, emozio berri eta biziak sentiaraziaz.

Txistua eta akordeoia dituzte pintzel: hauspoa, haizea, botoiak, zuloak, partxeak... etengabeko jolasean murgiltzen dira biak, bat eginda, interprete eta tresna bakarra bailira.

Erdi aroko musika, berpizkunde-koa, barrokokoa, hainbat herritako folklorea, Sarasate, Vivaldi, Guridi... musikan mugak norberak ipintzen ditu, tresnak berak baino askoz gehiago. Akordeoia eta txistuaz edozer adieraz daiteke: arnasa ematen dieten musikariek adierazi nahi duten edozer.



www.garikoitzmendizabal.com

GARIKOITZ MENDIZABAL



Berezko estiloa in crescendo

2 POLIEDRO

PROGRAMA

CD 1

- 1-10 - 10 Euskal melodia (10 melodías vascas)..... *Jesus Guridi*
I - Sant Urbanen bezpera (Narrativa)
II - Aritz adarrean (Amorosa)
III - Garizuma luzerik (Religiosa)
IV - Jentilari un (Epitalámica)
V - Alabatua (De ronda)
VI - Ala baita dolu egingarri (Amorosa)
VII - Asiko naz (De ronda)
VIII - Kaixarranka (Danza)
IX - Zorabiatua naiz (Elegíaca)
X - Andra ona duen gixona (Festiva)
11- Sarrera eta tarantela (Introducción y tarantella) *Pablo de Sarasate*
12- Caprice Basque *Pablo de Sarasate*
13- Muiñeira *Pablo de Sarasate*
14- Sonata k. 20 (Presto) *Domenico Scarlatti*
15- Sonata k. 208 (Andantino cantabile) *Domenico Scarlatti*
16- Sonata k. 525 (Allegro)..... *Domenico Scarlatti*
17-19 - Concerto per flautino RV 443 *Antonio Vivaldi*
I - Allegro
II - Largo
III - Allegro molto
20 - Can she excuse *John Dowland*
21 - Mrs. White's Nothinge..... *John Dowland*
22 - My Lady Hundson's Puffe..... *John Dowland*

CD 2

- 1- Zalla..... *Isidro Ansorena*
2- Azaroko lore maite bat..... *Isidro Ansorena*
3- Pays Basque *Jackie Pedeloy*
4- Arrate Fandangoa..... *Eduardo Gorosarri*
5- Arrate Arin arina..... *Eduardo Gorosarri*
6- Arrate Biribilketa..... *Eduardo Gorosarri*
7- Errekan dau arrie (Jota)..... *Tradizionala*
8- Attona kaskazuri (Porrusalda)..... *Tradizionala*
9- Brehme..... *Gorka Hermosa*
10- Dobbin's Flowery vare / Mo tír..... *Tradizionala (zeltiarra)*
11- Lamento di Tristano / La rotta / Saltarello *Anonimoa*



GARIKOITZ MENDIZABAL

www.garikoitzmendizabal.com

Berezko estiloa in crescendo

2 POLIEDRO

MUSIKARIAK



AITOR FURUNDARENA

Ordizian jaio zen 1970ean. Soinu-jolea, moldatzailea eta musikagilea. Konposizio ikasketak Francisco Eskuderorekin egin zituen eta soinuari zegozkionak Carlos Iturralderekin. Ondoren, hobekuntza ikastaroak egin zituen nazioarteko ospea duten hainbat irakaslerekin; hala nola, Claud Ballif eta Max Bonnayrekin, Parisen, eta Mogens Ellegaardekin **Royal Academy of Music** delakoan, Copenhagen (Danimarka).

Bakarlari moduan aritu da orkestra desberdinetan; esaterako, **"Les Jeunes Solistes"** taldean eta Frantziako Orkestra Nazionalean. Musika garaikideak eta herrikoiak sortzen dion grinak artista askorekin elkarlanean aritzera eraman du. Hauen artean Faltriqueria, Patxi Kaleko, Amaia

Zubiria, Pantxoa eta Pello, Txomin Artola eta Larraitx Ugartemendia daude. Bere lan diskografiko aipagarrienak **"Akordeoi Klasikoa"**, **"Juanitā"** eta **"Eta orain badakit"** dira eta Antzerki, Zine eta Telebista proiektuetan ere hartu du parte.

Egun, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiko (**Musikene**) irakasle da.



www.garikoitzmendizabal.com

2 POLIEDRO

MUSIKARIAK



GARIKOITZ MENDIZABAL

Garikoitz Mendizabal txistuaren adierazgarriarik onena da; musika-tresna honekin eta euskal kulturarekin guztiz konprometiturik dagoen musikaria.

Goi Mailako Gradua du Txistuan eta Karrera Amaierako Ohorezko Saria lortu zuen Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan.

Euskal Herriko Txistularien Lehiaketan bi sari irabazi zituen eta 2002an lehenengo saria eskuratu zuen Erreterian ospatutako Txistularien Banden Sariketan, Gasteizko Txistularien Bandarekin batera. Banda horren zuzendaria ere izan zen.

Musika-talde ospetsu ugarirekin egin du lan barkarlari moduan: Madrilgo Erkidegoko Orkestra Sinfonikoarekin, The Bratislava Symphony Orchestra-rekin, St Petersburg State Symphony Orchestra-rekin, Bartzelonako Liceu-ko Orkestrarekin, Euskadiko Orkestra

Sinfonikoarekin, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin, Hego Koreako Chun Cheon Philharmonic Orkestrarekin eta Gyonbook Philharmonic Orkestrarekin eta Madrilgo Udal-Bandarekin, esate baterako.

Folk musika-taldeekin ere kolaboratzen du, besteak beste **Korrontzirekin**, eta Carlos Nuñez eta Kepa Junkeraren mailako artistekin hainbat musika proiektu gauzatu ditu.

Garikoitzek diskografia zabala du. Bilboko Udal Txistularien Bandaren zuzendaria da egun, eta barkarlari moduan ere aritzen da. Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko kide da.



www.garikoitzmendizabal.com


2 POLIEDRO

KONTRATAZIOA:

Email: gari@garikoitzmendizabal.com

Tlf: +34 690 622 498

www.garikoitzmendizabal.com



“Berezko estiloa
in crescendo”